

Javi West Larrañaga Bilbo

Zortzi urte egin ditu Juan Mari Aburtok (Bilbo, 1961) Bilboko alkatetzan, eta beste lau egiteko aurkeztu du bere burua alkatetzarako. EITB Focusen inkesten arabera, gehiengo osoaren atarian dago EAJ, baina ez du baztertu berriro PSE-EErekin gobernatzea. «Hauteskundeetara begira, konfiantzaz nago, geneuzkan proiektu guztiak aurrera eroatea lortu dugulako».

Zelan joan da agintaldia?

Agintaldi oso zaila izan da guztiontzat: gizartearentzat eta erakundeentzat. Azpimarratu nahi nuke zelan egin diogun aurre pandemiari: elkarlanarekin. Alderdi guztiak izan gara kapaz baikoitzaren iritziak eta ideiak alboan utzi eta akordioetara heltzeko. Pozik nago horrekin.


Zein da EAJren proposamena datozen lau urteetarako?

Ez zait gustatzen promesak egitea, baizik eta konpromisoak hartzea. Hiru lehentasun dauzkagu. Lehenik, pertsonak; pertsona guztiak, inor atzean gera ez dadin. Bestetik, auzoak. Bilbo 42 piezako puzzlea da, eta piezaren bat falta bada, ez dago polito. Auzo guztiek sentitu behar dute Bilbo honen parte; hiri orekatua behar dugu. Azkenik, garapen ekonomikoa eta kalitatezko enplegua. Gizarte kohesioa lortzeko, beharrezkoa da garapen ekonomikoa. Garapenak ez badakar gizarte kohesioa, ez dugu nahi garapenik.

Espainiako Etxebizitza Legeak leku batzuk tentsio eremu izendatzea aurreikusten du, alokairu igoserak mugatzeko. Izendatuko zenuke Bilbo tentsio eremu?

Legean agertzen da nola egin, errenta baldintzak, zailtasunak... Hori egiteko, Euskadik badu eskumena, estatua sartu barik. Hori esanda, ezin dugu aurreiritzirik eduki. Aztertuko dugu, eta ikusiko dugu, baina ezin dugu ahaztu Bilbon daukagun babes publikoko etxebizitza ratioa estatuko altuena dela. Euskadiko etxebizitza legea geneukan aurretik, baina diru sarrerak bermatzeko errentarekin lotuta geneuzkan etxebizitzaren prestazio osagarriak ere. Ezin dugu ahaztu etxebizitzaren arazoa konpontzeko tresna nagusia enplegu duina izan behar dela, ondo ordaindutakoa. Hortik aurrera, gure politikak alokatzera bideratu behar dira; ezin dugu babestu etxe baten jabea izatea. Laguntzak eman behar ditugu, eta etxebizitzak eraiki alokatzeko.

Zuen aurreko programaren puntuetako bat zen euskararen erabilera sustatzea Bilbon eta uda-



ARITZ LOIOLA/FOKU

«Bilbon zeozer egiten baduzu, atxilotua eta zigortua izan zaitezke»

Juan Mari Aburto • EAJren hautagaia Bilboko udalerako

Bilbo hiri segurua dela aldarrikatzen du Aburtok, baina nahi du «gaizkileek» jakitea zeozer egiten badute ez dela zigortu gabe geratuko. Haren ustez, «beharrezkoa» da polizia gehiago egotea hirian.

laren funtzionamendu hizkuntza izatea. Bete da?

Prozesu bat da, eta barrura begira hobetu egin da. Gero eta gehiago egiten dugu gure lana euskaraz, baina bide luzea daukagu aurretik. Kanean ere hainbat programa egin ditugu, merkataritzaren alorrean, familienean, kirolarenean... Gero eta jende gehiagok daki euskaraz; orain, erabilpena da erronka.

Basurtuko ospitaleko osasun langile ugari zerbitzuaren «pobretzea» salatu zuten iaz, eta zuri eskatu zizuten euren alde egiteko. Zer iritzi duzu aferaz?

Argi esango dizut. Ez daukat behar den ezagutza jakiteko bihotzeko kirurgia egon behar den Basurtun eta Gurutzetan edo bateratuta egon behar den. Nik nahi dut bilbotar batek bihotzeko kirurgia behar duenean arreta onena eman diezaiotela. Ezin dira arazo artifizialak sortu. Ni Basurtuko

ospitalea txikitzearen kontra nago; ospitale integrala izatea nahi dut. Elkarlanean aritu naiz [Goztone Sagardui] Osasun sailburuarekin, eta aurreratu dezaket Basurtuko ospitalea handitu egingo dela hurrengo urteetan.

Hautagaitzaren aurkezpenean, zera esan zenuen: «Egurrak gaizkileari. Jakin dezatela Bilbon atxilotu eta zigortu egiten zaituztela». Bilbo hiri arriskutsua da?

Ez nuke esango. Hiri segurua da, baina ez du esan nahi ez denik ezer gertatzen. Urtero ematen ditugu datuak, gardentasun osoz. Segurtasun hitzarmena alderdi guztiok sinatu genuen. Egin duguna alderdi guztiok egin dugu. 2018tik hona, 250 polizia gehiago jarri ditugu Bilboko kaleetan. Momentu honetan, 900 udaltzain daude. Indarrez lapurtzen dute netatik, bitik bat atxilotzen dugu. Hortaz, Poliziaren efikazia izugarria da. Atxilotuak %233 ugaritu

dira. Sendo ibiliko gara gaizkileen aurka, baina zigorgabetasuna ezabatu behar dugu. Harremantant gaude epaileekin epaiketa ariak lortzeko. Gure asmoa da sentazio hori ezartzea: Bilbon zeozer egiten baduzu, atxilotua eta zigortua izan zaitezke.

Basaurin, Iruñean, Ermuan, Donostian, Gasteizen... emakumeen etxeak daude. Bilbon ere eskatu dute talde feministek.

Bai, egia da, Bilbon ez dago. Programan jaso dugu datorren agintaldian eraikitzeko asmoa.

Aurreikusituz duzue non?

Leku batzuk egon daitezke. Momentu honetan, Telefonicaren etxe bat aztertzen ari gara, Alde Zaharrean.

Iaz polemika egon zen Aburiko saskibaloi kantxan lo egiten zuten etorkin adingabeen aferagatik. Udalak hesi batzuk ipini zituen, eta gauetan jarratzea erabaki. Egin diezue jarraipenik?

MOTZEAN

Liburu bat? *Printze txikia* (Antoine de Saint Exupery).

Athleticen ondoren, zer talde? Athletic.

EAJkoa ez den erreferentziako politikari bat? Pepe Mujika.

Zaletasun bat? Kirol guztiak, eta, orain gutxiago egin arren, naturan ibiltzea.

Mendi gogokoena?

Auñamendi. Gaztetan hainbeste alditan joanda... Pagasarri ere bai, Bilbokoa delako eta niretzat oso hurbil dagoelako.

Zehazte aldera, ez ziren adin txiki-koak: adin nagusiko gazteak ziren. Lehenik eta behin, areto futbolearen eta saskibaloiaren jokatzeko eremu bat egin genuen Atxurien. Ezin zen behar den moduan erabili, pertsona horiek gertatzen zirelako lo egitea eta euren beharrezkoak egitea. 2019an, 203 leku geneuzkan etxegabeentzat. Orain, lau urte pasatuta, 539 dauzkagu, eta neguan, beste 276 gehitzen ditugu. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Plangintzaren arabera, Bilbori 59 leku eskaintzea dagokio.

Etxegabeekin dugun konpromisoa izugarria da. Norbaitek ezagutzen badu gurea baino konpromiso handiagoa, esan dezala. Bilbok egin beharrezkoa egiten du, baina udal guztiak egin behar dute gauza bera. Egiten dute? Arrigorriaga daukagu hortxe bertan. Bilbora pertsona asko etortzen dira beste leku batzuetatik. Guk ezin dugu mugá barik eman arreta. Eta bikoiztu baino gehiago egin dugu lekuen kopurua. Hori esanda, Atxuriko pertsona guzti-guztiei arreta eskaini genien. Batzuek onartu zuten, eta beste batzuek ez. Auzokoen eskutitza daukagu, esanez ados zeudela udalarekin eta jarraitako hesiekin.

SOS Arrazakeriak San Frantzisko auzoaren «militarizazioa» salatu zuten orain dela hil batzuk. Bertan ibiltzen den polizia kopurua egokia iruditzen zaizue?

Bertako auzo elkarteek dioskute pozik daudela Polizia euren kaleetan ikusiz. Nik ez dut militarrik ikusi handik, baizik eta udaltzainak eta ertzainak, eta esango nuke herritik sortutakoak direla. Haien lana da auzotarrak babestea. Horrexegatik uste dut beharrezkoa dela daukagun Polizia eta gero eta polizia gehiago izatea. Hiritarrek inkestetan esaten dute poztekoa dela gero eta polizia gehiago egotea Bilbon. EH Bilduk, PPK eta EPK ere beharrezko ikusi dute, hala zehaztu zuten-eta sinatutako segurtasun hitzarmenak.